



eskuze

berria

Kultura

| LITERATURA | MUSIKA | BERTSOLARITZA | ZINEMALDIA |

DONOSTIAKO 70. ZINEMALDIA

Keinu bat iragan hurbilari

Bakearen Aldeko Koordinakundeari buruzko dokumental bat estreinatu dute Zinemira sailean. Xuban Intxaustik zuzendu du, enkarguz, eta «aurreiritziak hautsi» nahi ditu





Urtzi Urkizu

DONOSTIA - 2022KO IRAILAREN 18A - 00:00

1985ean sortu eta 2013an desegin zen Bakearen Aldeko Koordinakundea. Urte horietan indarkeriari zilegitasuna kentzeko ahaleaginean aritu zen, giza eskubideen alde jardunez. Mugimendu horretan parte hartu zutenei aitortza egiteko asmoz, *Gesto* dokumentala egin du Humanistic ekoiztetxeak. Zinemira sailean estreinatu zuten, atzo gauean. Eta egileen eta parte hartzaileen asmoa da datozen hilabeteetan herrietan proiektzioak antolatzea.

Proiektua enkarguz iritsi zaio Xuban Intxausti ekoizle eta zinemagileari (Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1980). «Lagun min bat dut Bakearen Aldeko Koordinakundearekin harreman handia duena. Esan zidan norbaiten bila ari zirela dokumental bat egiteko; bilera batera deitu ninduten, eta konpromisoa hartu nuen aztertzeko Bakearen Aldeko Koordinakundeak zer egin zuen». Intxausti bera harrituta dago bere buruarekin dokumentala egin duelako. «Izan ere, ni ez nintzen inoiz egon haien elkarretaratze batean. Baina objektiboki aztertu nuen zer egin zuten, eta iruditu zitzaidan sekulako lana egin zutela». Zuzendariak argi ikusi zuen Euskal Herriko gizartearen aitortza merezi dutela.

Dokumentalak Gogora institutuaren laguntza izan du, baita Eusko Jaurlaritzarena eta Nafarroako Gobernuarena, Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroarena eta ETBrena ere. Hain zuzen ere, Bakearen Aldeko Koordinakundeak berak ETBren artxibo guztia zuen: 300 bideo. Eta horiek erabili ahal izan ditu zuzendariak. «Dokumentalista gisa, hori albiste ona da: badakizu aukeratu eta baztertu dezakezula. Ez duzu pentsatzen ibili behar buruan dituzun irudi horiek badauden». Horrek modua eman zion editatzean eta gidoia idaztean «zirujau lana» egiteko. «Grabaketara joatean, bagenekien zer irudi egongo ziren, eta protagonistek hitz egin behar zutenean zein argazki egongo zen atzean».

1985ean sortu eta 2013an desegin zen Bakearen Aldeko Koordinakundea. Urte horietan indarkeriari zilegitasuna kentzeko ahaleaginean aritu zen, giza eskubideen alde jardunez. Mugimendu horretan parte hartu zutenei aitortza egiteko asmoz, *Gesto* dokumentala egin du Humanistic ekoiztetxeak. Zinemira sailean estreinatu zuten, atzo gauean. Eta egileen eta parte hartzaileen asmoa da datozen hilabeteetan herrietan proiektzioak antolatzea.

Proiektua enkarguz iritsi zaio Xuban Intxausti ekoizle eta zinemagileari (Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1980). «Lagun min bat dut Bakearen Aldeko Koordinakundearekin harreman handia duena. Esan zidan norbaiten bila ari zirela dokumental bat egiteko; bilera batera deitu ninduten, eta konpromisoa hartu nuen aztertzeko Bakearen Aldeko Koordinakundeak zer egin zuen». Intxausti bera harrituta dago bere buruarekin dokumentala egin duelako. «Izan ere, ni ez nintzen inoiz egon haien elkarretaratze batean. Baina objektiboki aztertu nuen zer egin zuten, eta iruditu zitzaidan sekulako lana egin zutela». Zuzendariak argi ikusi zuen Euskal Herriko gizartearen aitortza merezi dutela.

Dokumentalak Gogora institutuaren laguntza izan du, baita Eusko Jaurlaritzarena eta Nafarroako Gobernuarena, Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroarena eta ETBrena ere. Hain zuzen ere, Bakearen Aldeko Koordinakundeak berak ETBren artxibo guztia zuen: 300 bideo. Eta horiek erabili ahal izan ditu zuzendariak. «Dokumentalista gisa, hori albiste ona da: badakizu aukeratu eta baztertu dezakezula. Ez duzu pentsatzen ibili behar buruan dituzun irudi horiek badauden». Horrek modua eman zion editatzean eta gidoia idaztean «zirujau lana» egiteko. «Grabaketara joatean, bagenekien zer irudi egongo ziren, eta protagonistek hitz egin behar zutenean zein argazki egongo zen atzean».

Dokumentala Zarauzko (Gipuzkoa) Modelo zinema aretoan grabatuta dago. Lau iturri daude lanean: artxiboko irudien edukia; zinema aretoko eszenatoki gainean dauden pertsonaia nagusiek—guztiek Bakearen Aldeko Koordinakundean parte hartu zuten— esaten dutena; eszenatokian dauden horiek pantailan ikusten dutena eta komentatzen dutena, eta aretoko eserlekuetan daudenen lekukotzak. «Gidoi zorrotza idatzi genuen. Bagenekien aldi oro atzeko irudietan zer ikusiko zen, eta zer esango zuten protagonistek», azaldu du Intxaustik. Hamabost ordu grabatu zituzten, eta 80 minutuko filma osatu dute azkenean.

Bestalde, Fernando Velazquezen musikak girotu du dokumentala. Argazkia Nando Gutierrezena da. Eta muntaketan, Diego Dorado izan du alboan Intxaustik.

Dokumentalak formatu klasikoa duela aipatu du Intxaustik. «Nire teoria da edukiari garrantzia ematen diozunean, egoari kendu egiten diozula. Dokumental hau Bakearen Aldeko Koordinakundekoentzat egina dago, aitortza egiteko. Klasikoa behar du, beraz, eta ez nire burutazio formalista bat».

Filmean, Euskal Herriko iraganeko une gogorrak agertzen dira. «Batez ere, kontramaniestazioen momentuak dira gogorrak», dio zuzendariak —Bakearen Aldeko Koordinakundearen elkarretaratze isilen aurrean, *Euskal Herria askatu* lelopeko kontramaniestazioak egiten ziren sarri—. «Gizartearen parte bat jazarri egin zitzaion Bakearen Aldeko Koordinakundeari, eta horrek ukitu egin nau. Modu objektiboan erreparatu diot kontramaniestazioen gaiari, eta argi dago jazarpena egon zela». Beste hausnarketa bat ere egin du Intxaustik: «Egia da ezker abertzaleak sufrimendu ikaragarria izan duela, eta Espainiako Gobernua jazarri egin zitzaiola; bidegabekeria handiak pairatu zituela ere bai. Baina amorru hori zenbaitek Bakearen Aldeko Koordinakundekoan aurka azaleratu zuten, eta herritar haiek ez zuten hori merezi».

Dokumentaleko beste pasarte batean ageri da ETAk Jose Maria Aldaia enpresaria bahitua zuela. Askotariko protestak antolatu zituen Bakearen Aldeko Koordinakundeak, eta kide batek gogoratzen du mendi ibilaldi batean ezker abertzaleko batzuk zain zeuzkatela. «Gorrito begirada beldurgarriak» egin zizkietela aipatzen du. Intxaustiri iruditzen zaio orduko egoera hura aldatu dela. «Garai hartan, lehenengoa pentsamendu politikoa zen, eta, gertuko pertsona batek desberdin pentsatzen baldin bazuen, etsai handi bilakatzen zen». Zinemagileari iruditzen zaio ezker abertzaleko batzuek erakusten zuten «gorrito hura» politikarientzat zela. «Baina jende oso xumea zen Bakearen Aldeko Koordinakundeko elkarretaratzeetan parte hartzen zuena».

Herrietara iritsiko da filma

Dokumentalean kontatzen da Bakearen Aldeko Koordinakundeak kanpaina batzuk egin zituela presoak hurbildu zitzatela eta GALen krimenak iker zitezela eskatzeko. «Auzi horiei garrantzia berezia eman diet, ezagutzen ez den arlo bat baita», esan du Intxaustik. Taldeak 1990ean eman zuen torturaren aurkako lehen prentsaurrekoa. Eta presoek hurbiltzeari buruzko lehen hausnarketak 1994koak izan ziren.

Dokumentalaren egileak azaldu du lana herrietan aurkeztuko dutela. «Proiektzio osteko solasaldiak politak izan daitezke». Era berean, Intxaustik azaldu du filmaren lehen helburua Bakearen Aldeko Koordinakundean parte hartu zutenei aitortza egitea dela. «Bigarren helburua da sektore euskaldun eta abertzaleei aurreiritzi paradigma aldatzea». Hausnarketak haxe beharko lukeela uste du: «Zer ez dut ezagutzen, zer gaitatik egon naiz urrun, eta zeinetara hurbildu naiteke. Ikastea da kontua».